

EROSKI bere estrategiaren erdigunean jarri du Bezero Bazkidea**EROSKI TALDEAK ZAZPI MILIOI BEZERO
BAZKIDETIK GORA DITU, 2015EAN %15 IGO
BAITA KOPURUA**

- **Teknologien eta komunikazio kanalen aukera berriei esker, EROSKI, Caprabo, If eta Forum Sport-en txartelek kudeaketa komertzial integralago baterantz jo dute taldearen marka askotarikoetatik, eta gehiago egokitu dira bezeroen soslai ezberdinetara**
- **Joan den urtean, EROSKI Taldeak 212 milioi euro helarazi die bezeroei aurrezki eran**
- **EROSKIren jatorrizko kooperatibak milioi bat Bazkide Kontsumitzaile ditu, eta larunbat honetan, Bazkidearen Eguna ospatzera deitu ditu, kooperatibaren ekainaren 15eko Batzar Nagusia prestatzeko egun gisara**

Elorrio, 2016ko ekainaren 9a.- [EROSKI](#) 7 milioi Bezero Bazkidetik gora ditu guztira, eta denek dute txartelen bat EROSKIrena, Capraborena, If-rena edota Forum Sportena. 2015ean, %15 hazi zen komunitate hori, 1.170.467 lagun gehitu baitzitzaizkien lehendik zeudenei. EROSKI jatorrizko kooperatibak, kontsumo kooperatiba gisa, bi bazkide mota ditu, Bazkide Langileak eta Bazkide Kontsumitzaileak. Bi kolektiboek era paritarioan osatzen dute gobernu korporatiboa eta kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza.

"EROSKI proiektu kolektibo bat da, eta gizarteari irekia dago. Gure antolamendu kooperatiboaren eredu dela eta, hasieratik dira gauza desberdinak, lehentasuna ematen baitiogu proiektu kolektiboari eta ez banakoari. "Merkatu ekonomia balio kooperatiboekin lantzen dugu, eta kontsumitzaileari, Bazkide Langileari eta gizarteari emanak gaude", esan du EROSKIko Kontseilu Errektoreko presidentek, Leire Mugerzak.

EROSKIren eredu sozioenpresarialaren berezitasuna zertan den adierazten hasita, esan beharra dago jabetza langileena dela eta kudeaketa partaidetzazkoa dela, non Bazkide Kontsumitzaileak bezala baitaude sartuta langileak ere. Barne konpromisoaren maila da bere kultura kooperatiboaren erakusgarririk nabarmenenetakoa.

EROSKI Kluba orain dela urte eta erdi sortu zen, jatorrizko kooperatibako Bazkide Kontsumitzailearen figura biziberritzeko eta eredu hori markaren gainerako alorretara zabaltzeko. Era berean, teknologien eta komunikazio kanalen aukera

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA**CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)

berriei esker, taldearen markek kudeaketa komertzial integralago baterantz jo dute, eta bezeroen soslai askotarikoetara gehiago egokitu dira. Gaur egun, hiru milioi Bezero Bazkideetik gora ditu EROSKI Klubak.

Azken urtean, EROSKI Taldeak 212 milioi euro helarazi dizkie bezeroei aurrezki gisa, eskaintzen eta promozioen bidez, zeinak gero eta pertsonalagoak baitira. Ia 214.000 lagunek egunero dute harremana EROSKIrekin, dela App-en bidez edo dela onura pertsonalizatuak era proaktiboan kudeatzeko webgune espezifikoaren bidez. 31.000 lagunek baino gehiagok parte hartu dute EROSKI dendak Zurekin eredura eraldatu izana baloratzeko programetan. Horretarako, gehienek inkestak egin edo beren ohiko dendako langile taldearekin batera talde dinamiketan parte hartu dute, eta, hala, proposamen komertziala lehiaren testuingurura eta bezeroek espero dutenera egokitua izan da.

Bezero Bazkideek emandako erantzunetan oinarrituta, EROSKIek goitik behera berritu ditu zenbait atal, hala nola Gozokiena (Kafea, Tea eta Txokolateak), Sukaldearena (Olioak eta Pastak), Upategiarena (Ardoak eta Garagardoak), Garbiketarakoena eta Lurrindegiarena. Eta produktu ekologikoen atala eratu du. Gainera, dietetika produktuen sorta zabaldu da. Helburua zera da, kontsumitzaileari aukera askatasun handiagoa ematea bezeroak berak sorta berrien eta tokiko produktuen alde egiteko azaldu duen joerari jarraituta.

Horretaz gainera, haien erantzunetatik abiatuta, proiektu berriak lantzen ari da EROSKI bere markako produktuen nutrizio hobekuntzarako programaren barnean, gatz, azukre eta gantz gutxiago duten errezeta osasungarriekin. 2015ean, 287 tona gatz, gantz eta azukre kendu zituen EROSKIek bere marketatik, eta 460 produktu atera zituen glutenik gabe, 27 laktosarik gabe, 61 gatz gutxikoak, 49 gantz gutxikoak eta 40 zuntzetan aberatsak.

Larunbat honetan, Bezero Bazkidearen Eguna izango da

EROSKIek *Bazkidearen Eguna* ospatuko du larunbat honetan hilak 11, 16:00etan, Bilboko Euskalduna Jauregian. Deialdi hori irekita dago kooperatibaren EAEko, Nafarroako, Errioxako eta Kantabriako Bezero Bazkideentzat.

Ekitaldian, tokiko janarien feria bat izango da, eta, era berean, erakusketak eta dastatzeak egingo dituzte. Gainera, elikadurari eta ohitura osasungarriari buruzko tailerrak egongo dira, baita opariak, zozketak eta jokoak ere.

Ospakizunaren barnean, Bazkide Kontsumitzaileen Prestakizun Bilkurara deitu dute, hilaren 15ean kooperatibaren Batzar Nagusia izango baita. Bilkura ere Bilboko Euskalduna Jauregian egingo dute, eta Bazkide Kontsumitzaileek bertatik bertara

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)

ezagutuko dute joan den urtean zer-nolako eboluzioa izan zuten kooperatibak eta haren proiektu nagusiek.

Larunbateko *Bazkidearen Egunaz* kanpo, bazkideek badute kooperatibaren egunerokoan parte hartzeko modua, EAEko, Nafarroako, Errioxako eta Kantabriako 21 Batzorde Kontsumeristen bidez, zeinetan 1.500 Bazkide Kontsumitzailetik gora biltzen baitira.

Batzorde Kontsumeristek iritzia ematen dute, dendak etengabe hobetuz joan daitezten, eta diru funtsak kudeatzen dituzte gizarte eraldaketarako jarduerak lantzeko; jarduera horiek kooperatibarekin dute zerikusia, hala nola elikadura orekatua eta ohitura osasungarriak sustatzea, kontsumitzailea informatzea eta prestatzea eta ingurumenaren iraunkortasuna eta elkartasuna sustatzea; horrela, gizartea kohesionatua egongo da, eta aukera berdintasuna indartuko da.

Gobernu korporatiboa EROSKIIn

EROSKIIn, gobernu korporatiboa era paritarioan osatzen dute kooperatibako Bazkide Langileek eta Bazkide Kontsumitzaileek. Hala, bai Batzar Nagusia —komunitate bakoitzeko 250 ordezkariarekin— bai Kontseilu Errektorea —hamabi kidez osatua, modu paritario berberean— demokratikoki aukeratzen dituzte, eta karguak hartzen dituztenek ez dute ordainsaririk jasotzen, gobernu korporatiboaren gainerako organoetako kideek bezala, esan nahi baita Kontseilu Soziala, Kontseilu Kontsumerista, Baliabideen Kontseilua eta Zaintza Kontseilua.

EROSKIIn, erabakirik garrantzitsuenak kooperatibaren ordezkartza foroetan eztabaidatuta hartzen dira, zenbaitetan barne kontsulta zabalak egin eta gero.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)